

Blanca de la Peña da Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatu berria

Diputatu nagusiak haren “erantzukizuna” nabarmendu du, covid-19aren krisialdiak markatutako egoera zailean hartzeagatik kargua

Gasteiz, 2020ko irailaren 8a.- Blanca de la Peña Bernalek gaur hartu du Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatu kargua. De la Peña Zuzenbideko lizentziaduna da, Gasteizko Udaleko zinegotzia izan zen joan den agintaldian, eta esperientzia profesional handia dauka abokatu gisa eta Arabako Hiri Jabeen Elkarteko letratu-kudeatzaile gisa (curriculum vitae erantsi da).

De la Peñak kargua agindu du Foru Aldundiaren Jauregian egindako ekitaldi instituzional batean, Ramiro Gonzalez diputatu nagusia buru izan dela, eta bertan izan direla Foru Gobernuko gainerako diputatuak, Pedro Elósegui Arabako Batzar Nagusietako lehendakaria eta batzarkide taldeetako bozeramaileak. Eta modu tradizionalen egin du: “Hitzematen dut Arabako foruak, usadio onak eta ohiturak defendatuko ditudala, autogobernuaren eta askatasunaren adierazgarri, justizia areagotuz”.

Ramiro Gonzálezek foru diputatu berriaren ongietorri ekitaldia itxi du, eta haren "erantzukizuna" nabarmendu nahi izan du, covid-19ak eragindako osasun eta ekonomia krisialdiaren ondoriozko egoera zailean hartu duelako kargua. "Errelebo hau gertatu da foru gobernuaren ekintza gure lurraldearen etorkizunerako funtsezkoa den une batean. Datozen hilabeteak oso garrantzitsuak izango dira, eta seguruenik neurri handi batean markatuko dute gure gizartearen etorkizuna”.

“Nola aurre egiten diogun guztion artean osasun eta ekonomia krisiari, horren araberakoa izango da datozen urteetan gertatuko dena. Gaur egun, inoiz baino gehiago, talde honek dituen balioek, Blanca de la Peña diputatu berriak partekatzen dituenak, lagundu behar digute egoera honi aurre egiten,

Prensa Oharra Nota de Prensa

lankidetzarekin, elkarlanarekin, elkarrizketarekin eta akordioarekin, nortasun ikur gisa ", adierazi du.

De la Peñak Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatu kargua hartu du, Javier Hurtadoren ordezkari, zeina Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailburu berria izango baita gaurtik aurrera.